

ENTITATE SOZIOKULTURALEKIN ELKARLANERAKO 2015eko LAGUNTZEN DEIALDIA

Barañaingo Udalak, Kultura Arloaren bidez, ondoko deialdia ezarri du; herriko ospakizunetan eta beste motatako ekitaldietan Barañaingo entitate soziokulturalen parte-hartzea sustatze aldera. Deialdiak, gehienez, **40.000 €** eskaintzen ditu, ondoko oinarriari jarraiki:

1.- XEDEA

Deialdi publiko honek publizitatea, lehia, objektibotasuna eta berdintasuna eta bereizkeriarik eza, gardentasuna, eraginkortasuna eta efizientzia printzipioak ditu oinarri, eta haren xedea da 2015. urterako Barañaingo Udalak diru-laguntzak ematea herriko entitate soziokulturalei, Kultura Arloaren bitartez. Deialdi honen baitan bakarrik Udalak antolatutako ekitaldietan parte hartzea lagunduko da, eta ez haiek antolatzea, Barañaingo Udalak berezko deialdi ezberdin bat baitu jarduera soziokulturalen antolaketarako. Era berean, egoitzak erabiltzeagatik sortutako gastuak ez dira diruz lagunduko.

Diru-laguntzen helburu nagusia izanen da kultura ekintzak areagotzea urte osoko jai ekitaldietan, herriko festetan eta interes berezikotzat jotako egun jakinetan; besteak beste, **Agate Deuna, Stock-azoka, Inauteriak eta Jacobo de Licras, Barañaingo Eguna, Sanjuanak, Festaurrekoak, 2. eskuko Merkatu txikia, Santa Zezilia, Done Eztebe, eta Eguberriak**. Deialdiak barne hartzen ditu Errege Kabalgatarekin eta Olentzerekin zerikusia duten jarduerak. Era berean, helburu da, baita, entitate kulturek herrian egindako jardueren zabalkundea erraztea.

Jarduerak ezin izanen dute Barañaingo Udalaren beste arloetatik eta programetatik finantzaziorik jaso. Ez eta, Udalaren gainontzeko zerbitzuek eskainitakoekin zerikusia edo antzeko ezaugarriak dituzten proposamenek ere.

Jarduera guztiek 2015eko abenduaren 31 baino lehen eta Barañainen egitekoak behar dute izan.

2.- BALDINTZAK

Deialdian parte hartzen ahalko dute irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek, Barañainen helbidea dutenek eta Udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenek. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, elkarteek segidako baldintzak bete beharko dituzte (eta baldintza horiek mantendu diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomiko guztian):

- Elkartearen estatutuetan ezarritakoari jarraiki garatzea jarduerak, esparru soziokulturalean.
- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan eta Barañaingo Elkartearen Udalerregistroan.

- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea, eta hori guztia egiaztatzea dagozkion sinestamenduekin (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak). Barañaingo Udalarekiko betebehar fiskalei dagokionez ofizioz egiaztatuko da hori guztia, behar diren zuzemenei bidez agerrarazita. Era berean, ofizioz egiaztatuko da ez duela zenbatekorik ordaintzeke Udalaren Diruzaintzan. Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak dagozkion zuzemenei bidez egiaztatuko dira; dena den, ez daudenean derrigortuta betebehar horiei dagozkien egiaztagiria aurkeztera adierazpen arduratsuaren bitartez egiaztatuko da betebehar hura betetzen dutela, 2. Eranskinak duen edukiaren gisan.

- Aurkeztuta edukitzea aurreko urteetan jasotako diru-laguntzei dagozkien ordainagiri guztiak.

- Barañaingo Udalarekin ez edukitzea sinatuta elkarlanerako hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik egitasmoarentzat, zeinetarako eskatu baita finantzazioa. Era berean, diru-laguntzarik ez jasotzea Udalaren beste arloetatik jarduera bererako.

3.- ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak Barañaingo Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira –Kultura Arlora zuzendurik–, eta **epea 2015eko martxoaren 27ko 14:00etan bukatuko da.**

Eskabideak I. Eranskina eredu erabilia aurkeztu behar dira, eta segidako datuak jaso behar dituzte haiek:

- Entitatearen edo elkartearen lege izena, IFZ eta banku-datuak eguneratuta.
- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren datuak: izen-abizenak, NAN, kargua, helbidea eta harremanetarako bidea (telefonoa, faxa, posta elektronikoa).
- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren adierazpena sinatuta, zeinetan adierazten baita dossierrean jasotako informazioa zuzena dela.
- Eginiko jardueren deskripzio xehatua, I. Eranskina orrian agertzen den eskaerak aurkezteko fitxaren arabera.
- Jarduerari dagokion aurrekontua –kontzeptuka bereizita-, eta Udalari, guztira, eskatu zaion diru-laguntza.
- Elkarrekin dituen laguntza edo diru-laguntzen eta diru-sarreraren berri ematen duen adierazpen zehatza, eta, horrelakorik ezean, inongo laguntzarik jasotzen ez duela adierazten duen aitortpena. Halaber, lehenagotik laguntzarik eskatu baldin bada eta deialdi honetako eskabidea aurkeztutako momentuan oraindik erabaki gabe baldin bada, hori ere adierazi beharko du.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak), baldin eta derrigortuta badago aipatu betebehar horiei dagozkien adierazpenak edo agiriak aurkeztera.

Agiriak originalak edo konpultsatutako fotokopiak izan behar dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

4.- BALORAZIOA

Kultura Arloko Informazio Batzordeak espedientea aztertuko du eta Tokiko Gobernu Batzordeari proposatuko dio diru-laguntza onartzea eta hura orain dezan, aurretik Kultura Arloko zerbitzu teknikoek emandako txostenarekin batera eta Udalaren Kontu-hartzailetzak fiskalizazioa egin eta gero.

Balorazioak kontuan izango dituen alderdiak dira:

KALITATEA, guztira, 50 puntu:

4.1.- Proposatutako emanaldi kopurua: Proposatutako irteera edo jarduera bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, **30 puntu**.

4.2.- Jardueren programan berrikuntza edo berritasuna: Programan berritasun bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, **5 puntu**.

4.3.- Proposamenaren kalitatea: sari, esker ona edo aipamen bakoitzarengatik, azken hiru urteotan, 2 puntu; eta, gehienez ere, **10 puntu**.

4.4.- Trebakuntza: Jarduerarekin zerikusia duen trebakuntza ikastaro edo tailer bakoitzarengatik, azken hiru urteotan, puntu 1; eta, gehienez ere, **5 puntu**.

PARTAIDETZA, guztira, 30 puntu:

4.5.- Elkartek, entitateak edo erakundeak Barañainen duen inplikazioa, partaidetza eta ematen duen kultura laguntza: Herriko kultura programa, zeinetan parte hartzen baitu hark, bakoitzeko 2 puntu; eta, gehienez ere, **20 puntu**.

4.6.- Elkarren arteko kultura programetan, herrian, elkartek beste elkarrekin elkarlana: Herriko beste elkarrekin batera burututako ekitaldi bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, **5 puntu**.

4.7.- Elkarrearen partaidetza herritik kanpoko kultura programetan: Parte hartzen duen herritik kanpoko kultura programa bakoitzarengatik 0,5 puntu. Nafarroatik kanpokoak badira, puntu 1 parte-hartze bakoitzarengatik; eta, gehienez ere, **5 puntu**.

JARDUNBIDE EGOKIAK, guztira, 20 puntu:

4.8.- Elkartekide kopurua eta haien sexua, eta Barañaingo biztanleek entitatean duten parte-hartze parekidearen garrantzia (**10 puntu**). Parekideak diren taldeei 5 puntu emango zaizkie, eta, martxan jarri duten jarduera onuragarri bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, **5 puntu**.

4.9.- Ingurumenarekin jardunbide arduratsua eta iraunkorra: Jardunbide bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, **10 puntu**.

5.- EMAKIDA

Jasotako eskaerekin deialdi honetako diru-laguntzen zenbatekoa gainditzen bada, balorazioan puntu gutxien lortu dutenena bertan behera gera daiteke, edo proportzionalki banatzen ahalko da eskaeren artean diru-laguntzaren zenbatekoa, aurkeztu diren eskaeren arabera.

Halaber, Kultura arloak egiten dituen diru-laguntzetako deialdietatik soberazko zenbatekoa geratuko balitz, deialdi honetako diru-hornidura handitzeko erabiliko litzateke hura.

Arau orokorra da Barañaingo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren babesean emandako diru-laguntzek, guztira, ez dutela gaindituko jardueraren aurrekontu osoaren % 50.

Hala eta guztiz, salbuespen gisa, ikusirik jardueraren izaera, pertsona edo entitate eskatzaileak izan duen ibilbidea eta indarra, eta proposatzen den jarduerak hala Barañaingo udalerrian nola herritik kanpo izan dezakeen oihartzuna, organo eskudunak bidezko juzgatzen badu, diru-laguntzaren zenbatekoa ezarritako % 50 horretatik gorakoa izan daiteke, eskatutakoaren mugara iritsi bitarte.

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesatuak horren berri hartu eta 10 eguneko epean espresuki uko egiten ez badio. Eskatzaileak Batzordearen aurrean ager daitezen eskatzen ahalko da, Batzordeak eskatutako edozein argibide eman dezaten.

Emandako zenbatekoa bi epetan ordainduko da (organo eskudunak zehaztutako kasu berezietan izan ezik): % 50, emakida egin ondoren, berehala. Gainontzeko % 50, jarduera egin eta 6. oinarriak aipatzen duen derrigorrezko memoria aurkeztu eta gero.

6.- BETEBEHARRAK

Onuradunek nahitaez egin beharko dute proiektua onartutakoarekin bat (edukiak, egunak, lekuak, osagaiak, e.a.).

Horretaz gain, nahitaez eman beharko dute diru-laguntza jaso duen jarduera egin bitartean izandako edozein gertakariren berri. Jardueraren zabalkuntzan (betiere Udalak berak egin ez badu) aipatu beharko da Barañaingo Udaleko Kultura Arloaren laguntza jaso duela; hartara, Udalaren eta Kultura Etxearen logotipoak azaldu beharko dira. Kultura Etxean eskatu beharko dira logotipo horiek.

Jarduerari buruzko txostena, edukia eta zein modutan egin den, eta, halaber, balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak), **2016ko urtarrilaren 22ko 14:00ak baino lehen** aurkeztu beharko dira, Barañaingo Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan, III. Eranskina erabiliata eredu gisa.

Deialdi honetako baldintzaren bat beteko ez balitz edota memoria aipatutako epeetan aurkeztuko ez balitz, diru-laguntza bertan behera utzi eta emandako zenbatekoa itzularaztea erabaki lezake organo eskudunak.

11. DIRU-LAGUNTZETARAKO ARAUDIA

Honako Deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, aginduko du ondoko araudiak: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Barañaingo Udalaren diru-laguntza emateak arautzen dituen Ordenantza; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta diru-laguntzei buruzko Estatuko Araudia.

8 - HELEGITEAK

Oinarri hauen eta horiek betearazteko egintzen aurka ondoko errekurtsio hauetakoren bat paratzen ahalko da:

1.- Jakinarazi eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik, eta nahiz gero, Birjarpeneko errekurtsioa, erabakia hartu duen udal-organoaren aurrean (30/1992 Legea, azaroaren 25ekoa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatu zuena); birjarpenekoa aurkeztuz gero, ezin izango da ez gorako errekurtsioa ez administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri, birjarpenekoa ebatzi edo ustez ezetsi arte. Birjarpenekoaren ebazpenaren aurka ezin izango da beste birjarpeneko errekurtsioa aurkeztu.

2.- Jakinarazi eta hilabete bat igaro aurretik, eta nahiz gero, Gorako errekurtsioa Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa). Gorakoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri gorakoa espresuki ebatzi edo ustez ezetsi arte.

3.- Jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hurrengo bi hilabeteak amaitu aurretik, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aipatu jurisdikzioaren organo eskudunaren aurrean (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

ANEXO I**CONVOCATORIA DE AYUDAS DE
COOPERACIÓN CON ENTIDADES
SOCIOCULTURALES
AÑO 2015****I. ERANSKINA****GIZARTE ETA KULTURA
ENTITATEEKIN ELKARLANERAKO
2015eKO DIRU-LAGUNTZEN
DEIALDIA****FICHA PARA PRESENTACIÓN DE
SOLICITUDES****ESKAERAK AURKEZTEKO
FITXA-ORRIA**

ASOCIACIÓN / ENTIDAD / ORGANISMO RESPONSABLE DE LA ACTIVIDAD	JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA / ENTITATEA / ERAKUNDEA
<u>Nombre legal completo</u>	<u>Izen legala osorik</u>
.....
NIF	IFZ
.....
<u>Datos bancarios</u>	<u>Banku-datuak</u>
Entidad bancaria / <u>Banketxea</u>	Sucursal / <u>Sukurtsala</u>
.....
<u>Calle / Kalea</u>	<u>Nº / Zk.</u>
.....
Cuenta bancaria nº	Banku-kontuaren zk.
.....

Nombre y apellidos	Izen-deiturak
.....
con DNI	NAN
.....
declaro que las informaciones contenidas en este dossier son exactas.	Datu horien jabe naizen honek aitortzen dut txosten honetan jasotako informazioa egia dela.
Cargo en el proyecto presentado	Aurkeztutako proiektuan dudana kargua
.....
Dirección	Helbidea
.....
Teléfonos / <u>Telefonoak</u>	Fax / <u>Faxa</u>
.....
E-mail / <u>e-posta</u>	Firma / <u>Sinadura</u>
.....	<div style="border: 1px solid black; height: 80px; width: 100%;"></div>
Fecha/ <u>Data</u>	

PROPUESTA DE ACTIVIDADES:	JARDUEREN PROPOSAMENA:
----------------------------------	-------------------------------

1.- ASPECTOS GENERALES

1.1.- Descripción detallada de las actividades propuestas para este año (número de actuaciones con sus fechas, horarios y lugares). Ej.: 1.- Concierto noche de San Juan, 23 de junio, de 20:00 a 21:00, Lago de Barañáin.

1.....
2.....
3.....
4.....
5.....
6.....
7.....
8.....
9.....
10.....
11.....
12.....
13.....
14.....
15.....
16.....
17.....
18.....
19.....
20.....
21.....
22.....
23.....
24.....
25.....
26.....
27.....
28.....
29.....
30.....
31.....
32.....
33.....
34.....
35.....
36.....
37.....
38.....

1.- ALDERDI OROKORRAK

1.1.-Urte honetarako jardueren proposamenari buruzko deskripzio zehatza (jarduera kopurua, datak, ordutegiak eta lekuak). Adib.: 1. Sanjoanetako kontzertua, ekainaren 23an, 20:00etatik 21:00etara, Barañaiingo Lakuan.

1.2.- Señala si hay alguna innovación o novedad en el programa de actividades propuesta. Señala qué y cuándo. Ej.: 1-Se incluye una salida más en Fiestas, 2-Se incluye repertorio en euskara en los bailables de carnavales, 3- Se mejora el sonido en el concierto de San Juan etc.

1.....
2.....
3.....
4.....
5.....

1.2.-Adierazi ea berria edo alderdi berrizailerik dagoen proposatutako jardueren programan. Adierazi zer eta noiz. Adib.: 1. Irteera bat gehiago Festetan, 2. Inauterietako dantzaldietan euskarazko erreperorioa sartu da, 3. Soinua hobetu da Sanjoanetako kontzertuan, etabar.

1.3.- Señala en cuántos programas culturales del municipio ha participado la asociación en el último año. Señala cuándo y con qué grupo (se acreditará siempre que se pueda con los carteles de difusión de la actividad). Ej.: 1- Programa de Fiestas, dianas con Gaiteros de Barañáin, 2- Programa San Esteban, concierto con Euskal Kantak, 3- Programa Carnavales, desfile con Haizea etc.

1.....
2.....
3.....
4.....
5.....
6.....
7.....
8.....
9.....
10.....

1.3.-Adierazi udalerriko zenbat kultura programetan parte hartzen duen elkarteak. Zehaztu noiz eta norekin (Ahal bada ziurtatuko da jardueren karteekin). Adib.: 1. Festetako egitaraua, dianak Barañaingo Gaiteroekin, 2. Done Eztebeko egitaraua, kontzertua Euskal Kantak elkartearekin, 3. Inauterietako egitaraua, Haizea elkartearekin desfilea, etabar.

1.4.- Número de componentes de la asociación (desglosado por sexos). Detalla si se han puesto en marcha acciones positivas por la igualdad real de sexos en la asociación. Indica qué y cuándo. Ej.: 1-Se ha impulsado la participación femenina en el grupo en la campaña de matriculación de septiembre, 2-Se ha realizado una formación para utilizar lenguaje no sexista en adelante, 3-Se han apoyado las campañas locales contra la violencia de género/agresiones sexuales el 25 de Noviembre etc.

Nº HOMBRES / GIZON KOPURUA:
Nº MUJERES / EMAKUME KOPURUA:.....
TOTAL / OSOTARA:
1.....
2.....
3.....
4.....
5.....

1.4.- Elkartearen kide kopurua (sexuka berezita). Zehaztu ea martxan jarri diren benetako sexu-berdintasunaren aldeko ekintzak elkartean. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: 1. Emakumezkoen parte-hartzea bultzatu da taldean iraileko matrikulazio kanpainen, 2. Prestakuntza egin da aurrerantzean hizkuntza ez sexista erabiltzeko, 3. Genero indarkeria / sexu-erasoen kontrako Azaroaren 25eko tokiko kanpainei laguntza ematea, etabar.

1.5.- Señala si la actividad o programa cuenta con la puesta en marcha de prácticas responsables y sostenibles con el medio ambiente. Indica qué, cuándo y cómo. Ej.: 1-Se ha reducido el consumo de papel en los trámites, 2-Se ha utilizado papel reciclado para las partituras, 3-Se ha promocionado el consumo de alimentos ecológicos o de temporada en los eventos gastronómicos, 4-Se ha utilizado iluminación eficiente/de bajo consumo en los locales, 5-Se ha apoyado algún evento por el medioambiente etc.

1.....
2.....
3.....
4.....
5.....

1.5.- Adierazi ingurumenarekiko ohitura arduratsurik eta/edo garapen iraunkorrekorik jarri duen martxan jarduerak edo programak. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: 1. Paper kontsumoa gutxitu da izapideetan, 2. Paper birziklatua erabili da partiturentzat, 3. Elikagai ekologikoak edo garaian garaikoak kontsumitzea bultzatu da gastronomia ekitaldietan, 4. Argiztapen eraginkorra /kontsumo txikikoa erabili da lokaletan, 5. Ingurumenaren aldeko ekitaldiren bati laguntza eman zaio, etabar.

1.6.- Señala si el grupo ha logrado premios, reconocimientos y/o nominaciones en los tres últimos años. Indica qué, cuándo y dónde. Ej.: Premio Mejor Coral, octubre 2013, Tafalla.

1.....
2.....
3.....

1.6.- Adierazi taldeak, azken hiru urteotan, saririk, esker onik eta/edo izendapenik eskuratu duen. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: Abesbatza onenari saria, 2013ko urria, Tafalla.

1.7.-Señala cuantos programas formativos específicos, relacionados con la actividad, ha realizado el grupo en los tres últimos años. Indica qué, cuándo y dónde. Ej.: Taller de Jauzis, otoño 2013, Zizur Mayor.

1.....
2.....

1.7.- Adierazi zenbat trebakuntza programa berezi -jarduerarekin zerikusia dutenak- egin dituen taldeak azken hiru urteotan. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: Jauzien tailerra, 2013ko udazkena, Zizur Nagusia.

1.8.-Señala en cuantos programas culturales de fuera del municipio ha participado durante el último año. Ej.: 1-Programa de carnavales de Zizur Mayor.

1.....
2.....
3.....
4.....
5.....
6.....
7.....

1.8.- Adierazi herritik kanpoko zenbat kultura programatan hartu duen parte azken urtean. Adib.: Zizur Nagusiko Inauterietako programan.

2.- ASPECTOS ECONÓMICOS

2.1.- Presupuesto de la actividad o programa por conceptos. Ej.: Reparación de instrumentos, 1.000,00€

2.- ALDERDI EKONOMIKOAK

2.1.- Jarduerari edo programari dagokion aurrekontua, kontzeptuak adieraziz. Adib.: Instrumentuen konponketa, 1.000,00 €.

CONCEPTOS / KONTZEPTUAK	GASTOS / GASTUAK	INGRESOS/DIRU-SARRERAK

TOTALES / GUZTIRA _____ _____

2.2.- Declaración de las ayudas o subvenciones para el proyecto.

2.2.- Proiektuarentzat jaso diren diru-laguntzen adierazpena.

.....

.....

.....

.....

.....

2.3.- TOTAL DE LA SUBVENCIÓN SOLICITADA
(en EUROS).

2.3.- ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN
ZENBATEKOA GUZTIRA (EUROtan).

3.- PLAN DE DIFUSIÓN

Señale los recursos publicitarios que va a utilizar para su actividad cultural. Ej.: 1- 100 d'pticos con el programa de conciertos, 2- Publicidad en "Vivir en Barañáin" y 3- Publicidad en las agendas culturales del Ayuntamiento.

3.- ZABALKUNDE PLANA

Jarduera kulturala aurrera eramateko erabiliko dituzuen baliabideak zehaztu. Adib.: 1. Kontzertuen programarekin 100 orribiko, 2. Publizitatea "Vivir en Barañáin" argitalpenean, eta 3. Publizitatea Udalaren kultura agendetan.

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....

Gracias por su colaboración.

Esker anitz zure laguntzagatik.

ANEXO II / II. ERANSKINA

DECLARACION RESPONSABLE

Atención: Rellenar con letra mayúscula.

ADIERAZPEN ARDURATSUA

Erne!: Letra larriz bete.

D./Doña.

Jauna / Andrea:

--

DNI núm.:

--

zenbakidun NAN

actuando en representación de la ASOCIACIÓN o ENTIDAD

ondoko ELKARTE edo ENTITATEaren ordezkari gisa

--

(con NIF núm.

--

zenbakidun IFZ)

MANIFIESTA (marcar lo que proceda):

ADIERAZTEN DUT (markatu dagokizuna):

Que la entidad que representa no está obligada a presentar declaraciones o documentos referidos a cumplimiento de obligaciones con Hacienda Foral y con la Seguridad Social.

Ordezkatzen dudan entitatea ez dagoela behartuta Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagozkien aitorpen edo agiriak aurkeztera.

Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones de Gobierno de Navarra, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

Ordezkatzen dudan entitateak Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Barañáin, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

Ordezkatzen dudan entitateak Barañaingo Udaleko Elkartearen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

Y para que así conste ante el Ayuntamiento de Barañáin, a los efectos de la solicitud de subvenciones en el ejercicio 2014 a organismos, instituciones o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollan actividades en el área de la acción social, firma la presente,

Eta horrela jasota gera dadin Barañaingo Udalean, gizarte ekintzaren esparruan jarduerak antolatzen dituzten irabaz asmorik gabeko erakunde, instituzio edo elkartearen 2014ko ekitaldiko diru-laguntzetarako eskaeren ondorioetarako, sinatzen dut honako agiri hau,

En Barañáin a ____ de _____ de 2015.

Barañáin, 2015eko _____ ren ____ (a).

Firma de la persona declarante / Adierazpen egilearen sinadura

--

NOMBRE DE LA ENTIDAD / ENTITATEAREN IZENA:

**FICHA DE EVALUACIÓN
COLECTIVOS CULTURALES**

**EBALUAZIO-FITXA
KULTURA TALDEAK**

**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA
COOPERACIÓN 2015**



**ELKARLANERAKO
DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA 2015**

Área de Cultura
Ayuntamiento de Barañáin



Kultura Arloa
Barañaingo Udala

1.- DATOS GENERALES DE LA ACTIVIDAD.

1.- JARDUERARI BURUZKO DATU OROKORRAK.

* Actividad (música, danza...).

* Jarduera (musika, dantza...).

* Fechas, horas, y lugares de las actividades.

* Jardueren egunak, orduak eta lekuak.

* Repertorio, obra, tema...

* Errepertorioa, obra, gaia...

* Suspensión de la actividad. Motivo.

* Jarduera bertan behera uztea. Arrazoia.

*Señala cuantas horas semanales de ensayo realiza el grupo y dónde.

* Adierazi zenbat orduz entsaiatzen duen taldeak astero eta non.

*Señala cuántos de los miembros del grupo son personas entre 30 y 45 años.

*Adierazi zenbat taldekide diren 30 eta 45 urte bitartekoak.

Ninguno
Menos de la mitad
Más de la mitad
Todos /as

Inor
Erdia baino gutxiago
Erdia baino gehiago
Guztiak

2.- DIFUSIÓN

2.- ZABALKUNDEA

* Agenda cultural local.

* Barañaingo agenda kulturala.

* Publicación *Vivir en Barañáin*.

* *Vivir en Barañain* argitalpena.

* Carteles.

* Kartelak.

* Programas de mano.

* Esku-programak.

* Prensa escrita.

* Prentsa idatzia.

3.- VALORACIÓN

3.- BALORAZIOA

Resuma la valoración de la actividad y los motivos de la misma (positiva, negativa... y por qué).

Laburtu ezazue jarduerari buruzko balorazioa, eta arrazoitu (balorazio ona, txarra... eta zergatik).

